

HITZ BITAN

SAN SEBASTIAN EGUNA. Azpeitian eta Tafallan ere

Gaur gauerdian hasiko da donostiarren festa handia, 143 danborradekin

Erredakzioa | DONOSTIA

Gauerdia iristearekin hasiko da gaur donostiarren festa handia: San Sebastian eguna. 24 orduz jai giroa eta danbor hotsa izango dira nagusi Gipuzkoako hiri-buruan; eta hori horrela izan dadin, 15.000 lagun ariko dira jo eta su danborra jotzen. Donostian, 143 danborrada irtengo dira kalera, bakoitza bere lekutik eta dagokion orduan, eta horri esker, kaleak une oro alai mantentzea lortuko dute. Konstituzio plazan izango da, beraz, gauerdian donostiarrek huts egin ezin duten hitzordua.

Baina, San Sebastian eguna ez da soilik Donostian ospatzen, Euskal Herriko herri askorentzat da jaieguna. Hala nola,

EGITARAUA

00:00: Banderaren igoera, Konstituzio plazan, eta San Sebastian egunaren hasiera ofiziala. Gaztelubideko danborradak hasiko du, eta handien danborrada bakoitzeko ordezkari batek parte hartuko du. Egun osoan izango dira danborradak.

12:00: Haurren danborradaren hasiera, Jenerala, Danbor Nagusia eta Easo Ederra buru dituztela.

12:30: Abuztuko su artifizialen lehiaketako irabazleek Urrezko Maskorra jasoko dute.

00:00: Banderaren jaitsiera, Konstituzio plazan, jaiak amaitzeko.

Azpeitian, Tafallan, Lakuntzan eta Zangozan ere egun handia izango da; nahiz eta danborrada soilik Lakuntzan eta Azpeitian egiten dute; Zangoza eta Tafallan ez da horrelakorik.

GERTAKARIAK

Ertzaintzak laguntza eskatu du urtarrilaren 2tik etxean falta den emakume gernikar bat aurkitu ahal izateko

Ertzaintzak laguntza eskatu du J.B.Z. 31 urteko emakume gernikarra aurkitu ahal izateko. Senide eta lagunek ez dute haren berririk urtarrilaren 2az geroztik. Emakumeak 1,60 metroko garaiera eta 50 kilo inguruko pisua du, gaztain- koloreko ilea eta begi marroiak. Desagertu zenean alkandora berdea, beroki urdina eta oinetako zuriak zituen. Emakumearen berri dutenei informazioa Gernikako Ertzaintzaren komisarian jakinaraz dezatela eskatu die Ertzaintzak.

Osakidetza izenean zerbitzuak eskaintzen dituzten telefono dei batzuen iruzurraz ohartarazi du Jaurilaritzak

Gipuzkoa ekialdeko hainbat herritan gaixoei telefono deiak jaso dituzte, Osakidetza izenean zerbitzuak eskainiz. Eusko Jaurilaritzako Osasun Sailak ohartarazi duenez, Osakidetza ez ditu egin dei horiek: «Osakidetza bide instituzional pertsonalizatuak erabiltzen ditu gaixoei harremanetan jartzeko». Erakundeak herritarrei gogorarazi die tankera horretako deiak jasotzen dituztenean egiaztatu egin behar dituztela, herriko osasun zentroetan informatuz.

Ertzaintzak hiru lagun atxilotu ditu Bilbon, denda bateko horman zuloa egin eta bertan lapurtzen saiatzeagatik

Ertzaintzak 19 eta 30 urteko hiru lagun atxilotu zituen atzo goizaldean, Bilboko San Frantzisko kaleko denda bateko horman zuloa egin eta lapurreta egiten saiatzeagatik. Herritar batek Ertzaintzara deitu zuen, norbait horma batean zuloa egiten ari zela adierazteko. Patruila bat bertara joan eta zuloa egiten ari ziren hiru lagunak ihes eginen saiatu ziren, baina ertzainek harrapatu egin zituzten. Atxilotuak gaur pasatuko dira epailearen aurretik.

Espainiako Poliziak Nafarroan adingabeak esplotatzen zituzten hiru lagun atxilotu ditu Madrilén

Espainiako Poliziak Ekuadorko bi gizon eta emakume bat atxilotu zituen atzo Madrilén, Ekuadorko adingabeak esplotatzeagatik. Guztira 14 adingabe zituzten beren ardurapean, eta disko piratak saltzera behartzen zituzten kalean. Iazko urrian emakume batek bere ahizpa desagertuta zegoela salatu zuen, eta dei anonimo batean adierazi ziotenez, ahizpa Tuteran egon zitekeen. Espainiako Poliziak ikerketa hasi zuen eta emakumearen ahizpa Cintruenigon aurkitu zuten.



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Herrigunetik abiatu eta gero, Boroan termikoa egin gura duten lurretara heldu zen giza katea.

BOROA

Giza katea egin dute Zornotzan, zentral termikoa egin ez dezaten eskatzeko

Zornotza Bizirik herri plataformak deituta, 400 lagun inguruk giza katea egin zuten atzo eguerdian. Zornotzako Zelaieta parketik irten ziren, eta Boroa auzoan zentral termikoa egin gura duten lekuraino joan ziren. Bertan, *ESB kanpora*

eta *Zornotza Bizirik* zioten pankartak ipini zituzten. Horrez gainera, termikoa egin gura duten lurretara sartu ziren, eta zuhaitz bi landatu zituzten. Datorren larunbaterako, Zornotza Bizirik taldeak manifestaziora deitu ditu herritarrak.



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

BARRUTIK EZAGUTU GAITZAZU

Jardunaldi irekiak

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA			
ARRASATE	DATA	ORDUA/EGUNA	TITULAZIOAK
Erreserba: • 943 71 21 92 • Begoña Markaide	urtarrilaren 30 otsailaren 27 martxoaren 27 maiatzaren 15 maiatzaren 29 (2. zikloa)	17:30 osteguna	Industri Mekanikan Injinerutza Teknikoa Sistemen Informatikan Injinerutza Teknikoa Industri Elektroniketan Injinerutza Teknikoa Industri Diseinuan Injinerutza Teknikoa Telekomunikazioetan Injinerutza Teknikoa. (Telematikako Espezialitate, Telekomunikazio Sistemen Espezialitatean) Industri Antolakuntzan Injinerutza Industri Elektroniketan eta Automatikan Injinerutza Informatika Injinerutza (2. zikloa) Industri Injinerutza (2. zikloa)
GOIERRI, ORDIZIA			
Erreserba: • 943 88 00 62 • Estitxu Urkia	martxoaren 05 maiatzaren 07	17:30 asteazkena	Industri Mekanikan Injinerutza Teknikoa
LEA-ARTIBAI, MARKINA			
Erreserba: • 946 16 90 02 • Ludi Elezgarai	maiatzaren 12 maiatzaren 14	18:30 asteazkena	Industri Mekanikan Injinerutza Teknikoa
ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA			
ONATI	DATA	ORDUA/EGUNA	TITULAZIOAK
Erreserba: • 943 71 80 09 • Mireia Igarzabal	urtarrilaren 29 otsailaren 25 martxoaren 26 maiatzaren 14	18:30/asteazkena 18:30/asteartea 18:30/asteazkena 18:30/asteazkena	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizenziatura Gestio Informatikako Injinerutza Teknikoa Zuzendari Idazkaritza
ELGOIBAR			
Erreserba: • 943 74 41 32 • Rosa Igarza	26 de febrero 30 de abril	18:30 asteazkena	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizenziatura
HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA			
ESKORIALTZA	DATA	ORDUA/EGUNA	TITULAZIOAK
Erreserba: • 943 71 41 57 • Inigo Ramirez de Okariz	martxoaren 13 apirilaren 10 maiatzaren 15	18:30 osteguna	Humanitateak-Enpresa Lizenziatura Psikopedagogian Lizenziatura Irakasle Ikasketak - Haur Hezkuntza Irakasle Ikasketak - Hezkuntza Berezia Irakasle Ikasketak - Atzerriko Hizkuntza

www.mondragon.edu